

# **EZAUGARRIEN KOADROA**

## **KONTRATAZIO ORGANOA**

Zuzendari nagusiak edo Administrazio Kontseiluak berak, edo beste batzuek, hala dagokionean eta zuzenbide pribatuko arau aplikagarriekin bat etorritik, egoki irizten dieten pertsoneri berariazko ahalmena eman ahalko diete, kontratuari dagozkion jarduera zehatzak egikaritzeko.

## **A) KONTRATUAREN XEDEA.**

Euskaldunako jatetxeak eta batzar aretoa zaharberritzeko proiekturako ingeniari-aholkularitza, laguntza teknikoa eta kudeaketa integratua.

## **B) LIZITAZIOAREN GEHIENEZKO OINARRIA**

	Zenbatekoa, BEZ gabe
Gehienezko lizitazio-aurrekontua	83.421,00 €
BEZ	17.518,41 €
GUZTIRA	100.939,41 €
Aldarazia %20	16.684,20 €
Balio zenbatetsia – BEZ gabe	99.805,20 €

## **C) BETEARAZPEN EPEA**

Proiektuak idazteko epea 2 hilabetekoa izango dela aurreikusi da: **2017ko urria eta azaroa**; obrak betearazteko epea, likidazio fasea barne hartuta, gehienez ere 4 hilabetekoa izango da: 2017ko azarotik 2018ko martxora.

## **D) ESLEITZEKO MODUA**

Irekia, Euskaldunaren kontratazioko barne-jarraibideekin bat etorritik. Jarraibideok web helbide honetan daude: [www.euskalduna.eus](http://www.euskalduna.eus).

## **E) PROPOSAMENAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EGUNA**

Euskaldunako instalazioak: Abandoibarra 4, 48011 BILBAO.

**2017ko irailaren 20ko 12:00ak baino lehen.**

## **Oharra:**

Instalazioak bisitatzea ezinbesteko baldintza izango da enpresek lizitazioan parte hartu ahal izateko.

**2017ko irailaren 13a (09:00etan)** finkatu da instalazioetara bisita egiteko.

*(S Atala. Ezaugarri koadro honen oharra)*

## **F) KAUDIMEN EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN EGIAZTAGIRIAK**

Enpresa lizitatzailerik kaudimen ekonomiko-finantzarioa egiaztatuko dute, azken hiru urteetan negozio-bolumen handiena izandako urteko negozio-bolumena frogatzen duen dokumentazioa aurkeztuta, honako gutxienerako eskakizuna beteta eta aurkeztu beharreko dokumentu hauek entregatuta:

1. Gutxienerako baldintza: bolumen handiena izandako urteko negozio-bolumenaren zenbatekoa 149.707,80 €-koa edo hortik gorakoa izango da (BEZ gabe).
2. Aurkeztu beharreko dokumentuak: zenbateko hori erantzukizunpeko aitortzen bidez egiaztatuko da, administrazio ezaugarrien koadroaren barruan dagoen "Kaudimen Finantzarioa" izenerako eranskinean adierazten den bezala.

### G) BERMEAK

Berme hauek ezarri dira:

BEHIN-BEHINEKO

BERMEA

BEHIN BETIKO BERMEA

Ez da behar.
Esleipen zenbatekoaren %5, BEZ gabe

### H) PREZIOEN BERRIKUSPENA

Ez dago.

### I) KAUDIMEN TEKNIKOAREN EGIAZTAGIRIAK ETA, HALA BADAGOKIO, KONTRATISTAREN SAILKAPENA.

Enpresa lizitatzailerik kaudimen teknikoa egiaztatuko du, kontratu honen xede diren zerbitzu edo lan berberak edo antzekoak egiten esperientzia duela frogatzen duen dokumentazioa aurkeztuta, honako gutxienerako eskakizuna beteta eta aurkeztu beharreko dokumentu hauek entregatuta:

- Gutxienerako baldintza: azken bost urteetan lan-bolumen handiena izandako urtean egiaztatutako urteko zenbateko metatua 74.853,90 €-koa edo hortik gorakoa izango da (BEZ gabe).
- Aurkeztu beharreko agiriak: zenbateko hori erantzukizunpeko aitortzen bidez egiaztatuko da, administrazio ezaugarrien koadroaren barruan dagoen "Kaudimen Teknika" izenerako eranskinean adierazten den bezala.

Era berean, enpresa lizitatzailerik kaudimen teknikoa egiaztatzen duten honako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, kontratistaren sailkapenaz gain:

- Kalitatea eta ingurumena bermatzeko sistema bat ezarri izanaren ziurtagiriak, indarrean eta erakunde baimendun batek emandakoak, UNE-EN-ISO 9001 eta 14001 arauen arabera.
- Dagozkion curriculumak edo enpresa-ziurtagiriak aurkeztea, kontratuaren xederako jardungo duten langileek behar besteko kualifikazioa eta

esperientzia dutela frogatzeko, klausula teknikoen pleguaren "Gutxieneko lantaldea" izeneko 8. atalean adierazten den bezala.

- Instalazioen Bisita ziurtagiria, Euskalduna Jauregiko arduradunek sinatuta eta zigilatuta.

#### J) AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Lizitatzailleak agiri hauek aurkeztuko ditu:

- Kaudimen tekniko eta finantzarioa betetzen dela egiaztatzen duen dokumentua. Dokumentazio hau "B" gutun-azalean sartuko da:
- Kontratua betearazteko moduari dagokion memoria metodologikoa, Baldintza Teknikoen Orrietan jasotzen diren zehaztapenen arabera, honako datuak zehaztuz: eman beharreko zerbitzuen ezaugarriak, zerbitzuari atxikitako giza baliabideen dedikazioa eta zereginak, zereginen betearazpen epeak eta abar. Dokumentazio hau "C" gutun-azalean sartuko da.

#### K) ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Hauek dira esleitzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak:

#### **Formula bidez modu automatikoan kuantifika daitezkeen irizpideak (A gutun-azala)**

**65 puntu:** eskaintza ekonomikoa.

%0 eta %15 arteko deskontuak era proportzionalen baloratuko dira, eta gehienez **60 puntu** emango dira. Oinarriaren pareko eskaintzari 0 puntu emango zaizkio, eta %15eko edo hortik gorako deskontua proposatzen duen eskaintzari, berriz, 60 puntu.

%15etik gorako deskontuak era proportzionalen baloratuko dira, eta gehienez **5 puntu** emango dira. %15eko deskontuaren pareko eskaintzari 0 puntu gehigarri emango zaizkio, eta hortik gorako deskontua proposatzen duen eskaintzari, berriz, 5 puntu. Gainerako proposamenak era proportzionalen baloratuko dira.

Puntuak banatzeko formula:

1. Lizitatzailleak egindako deskontua %15ekoa edo hortik beherakoa bada:

$$\text{Puntuak} = \frac{60 \times \text{Eskaintzaren deskontua}(\%)}{15}$$

2. Lizitatzailleak egindako deskontua %15etik gorakoa bada:

$$\text{Puntuak: } 60 + \left[ \frac{5 \times (\text{Eskaintzaren deskontua}(\%) - 15)}{(\text{Gehienezko deskontua}(\%) - 15)} \right]$$

#### **Formula bidez modu automatikoan ezin kuantifika daitezkeen irizpideak (C gutun-azala)**

**35 puntu:** metodologia-txostenaren kalitatea, honako ataletan duen xehetasun mailari erreparatuta:

- Faseen eta zereginen ikuspegia eta xehetasunak.
- Gauzatu beharreko lanen plangintza, kontuan hartuta Euskaldunako jarduera modu normalean garatu behar dela.

#### L) ZIGORREN ZENBATEKOA

Esleipenaren zenbatekoaren %5eko zigorra ezarriko da, eskaintzan hitzartutako dataren gainean izandako atzerapeneko aste bakoitzeko, edo haren zati alikuota, gehienez proiektuaren guztizkoaren %25era arte.

## M) ESKATZEN DIREN ASEGUEN KONTRATUAK

Enpresa esleipendunaren kontura egongo dira bere lanak egiten dituen bitartean eraginiko kalte guztiak, kalteon nolakotasuna eta bolumena edozein izanik ere.

Enpresa esleipendunak, bere kontura dauden arriskuak estaltzeko, esleipenaren aldiari eta luzapenetan –luzapenik badago– ondoren azaltzen diren aseguru kontratuak kontratatu eta edukiko ditu, aipamen gisa adierazita, eta ez mugapen gisa, xedea estaldura eraginkorra baita:

- **GAIXOTASUN ETA ISTRIPU ASEGURUA** kontraturako izendatutako langile guztientzat eta kontratistak kontraturako azpikontratistek enplegaturiko langileentzat, legeari edo sektoreko lan hitzarmenei edo hitzarmen partikularrei jarraituz.
- Kontratuaren xede diren lanetan parte hartzen duten **IBILGAILUETARAKO NAHITAEZKO ASEGURUA**, ibilgailu propioak zein kontratatuak izan, nahitaezko nahiz borondatezko erantzukizun zibila kontrata daitekeen gehienezkoraino estalita.
- **ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA**, orokorra/ustiapena motetakoa (mugakideak eta/edo eramateak barne), lehendikoak, lan-istripuak (patronala eta gurutzatua) eta amaitutako lanak, eta defentsa eta finantzak, aseguratu gehigarri gisa (**EUSKALDUNA JAUREGIA**), kontratista, azpikontratista eta obretan parte hartzen duen pertsona oro, hirugarren pertsonako izaera galdu gabe. Frankizia ezingo da 1.500 €-tik gorakoa izan, eta ezbeharragatik gutxieneko kalte-ordaina 2.000.000 €-koa izango da ezbehar eta urteroko bakoitzeko, biktimako azpimugarik gabe, lan-istripuetan salbu; kasu horretan, gutxienez, 450.000 €-koa izango da.

Nolanahi ere, enpresa esleipendunak hartuko ditu bere gain frankiziaren zenbatekoaren pareko kalte-galerak, bai eta aseguru-poliza bakoitzean ezarritako mugak gainditzen dituen ere, poliza horiekin estaltzen ez diren ondasun eta arriskuez gain.

Kontratua bukatzeko, aurrez ezarritako datatik atzerapena gertatzen bada, beharrezko luzapenak kontratatuko dira, eta enpresa esleipendunak ordaindu beharko du dena delako gainprima.

Kontratistak pleguko eskakizunak bete direlako aseguru-ziurtagiria bidali beharko dio EUSKALDUNAREN ordezkariari, agiri horretan indarraldia, bermeak, mugak eta frankiziak zehaztuta eta prima ordaintzeko modua justifikatuta.

EUSKALDUNAK edozein unetan eskatu ahalko dio enpresa esleipendunari aseguruaren kontratazioa, ordainketa, edukia eta aseguruaren indarraldia egiazta dezala, eta, halakoetan, enpresa esleipendunak polizen eta ordainagirien kopia osoa aurkeztu beharko du.

Klausula honetan ezarritako konpromisoen ildotik kontratatzen den aseguruak ez ditu mugatuko enpresa esleipendunari kontratu honen ondorioz dagozkion betebeharrak eta erantzukizunak; hortaz, eskatutako mugapen eta bermeen aldetik gainditzeagatik edo ez iristeagatik egozten zaizkion galera edo erantzukizun guztiei erantzun beharko die, bai eta aseguruaren gabealdien zenbatekoari ere.

#### **N) FAKTURAZIOA ETA ORDAINTZEKO ERA**

Esleipendunari ordaintzeko era ondoko banakapenaren arabera egingo da:

- Kontratuaren prezioaren %15, Euskaldunak Oinarrizko Proiektua onartzen duenean.
- Kontratuaren prezioaren %20, Euskaldunak Beteazpen Proiektua onartzen duenean.
- Kontratuaren prezioaren %50, obrak gauzatzen diren bitartean eta hilabeteko ziurtagirien arabera.
- Kontratuaren prezioaren %15, jabetxeak entregatu eta abian jarri eta batzar aretoa zaharberritzen denean.

Ordainketa confirming bidez egingo da, faktura egin eta 30 egunera.

#### **O) KONTRATUA DESEGITEA**

Eskaini diren baldintzak eta ezaugarriak modu nabarmenean betetzen ez direnean, esleipenduna jakinaren gainean jarriko da. Gabezia horiek astebeteko epean konpontzen ez badira, Euskalduna Jauregiak kontratua suntsiarazi ahalko du.

#### **P) BETEARAZPEN EPEA**

Gutxienez 2 urteko berme-epea ezartzen da kontratu honen xederako.

#### **Q) ALDAKETAK ONARTZEA**

Ez da aldaketarik onartuko eskaintzan.

#### **R) ESLEITZEKO PROZEDURARI BURUZKO INFORMAZIOA**

Kontratatzailearen profila: Webgunea: [www.euskalduna.eus](http://www.euskalduna.eus)

Telefonoa: 944035000.

Info@euskalduna.eus

#### **S) OHARRAK**

2017ko irailaren 13a (09:00etan) finkatu da instalazioetara bisita egiteko.

Instalazioak bisitatzea ezinbesteko baldintza izango da enpresek lizitazioan parte hartu ahal izateko. Instalazioak bisitatzeko interesa duten enpresek horren berri eman beharko dute irailaren 12ko 14:00ak baino lehen, bisitaren eguna zehazteko; horretarako, mezu elektronikoa bidali beharko dute [info@euskalduna.eus](mailto:info@euskalduna.eus) helbidera, enpresaren izena adierazita, bai eta Erakundetik joango diren pertsonen izenak ere.

